

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko maiatzaren 19an hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko dirulaguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2023-2024 ikasturtea

BDNS (Identif.): 703199.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/703199>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, lehen hezkuntzan irakaskuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza emateko erabiliko dute, betiere Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak (Hezkuntza eta Kultura Saila) onartzen badu, ikastetxeek aurkeztzen dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorritik.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntzen deialdi honen xedea hau da: 2023-2024 ikasturtean Vitoria-Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea, lehen hezkuntzan matrikulatuta dauden eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntza psikopedagogikoa jaso dezaten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko maiatzaren 19an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

165.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2023ko irailaren 22ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epea kanpo aurkeztea diru laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 19a

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTIBALIZ CANTO LLORENTE